

MAHAI-JOLAS BERRIA

Perretxiko zaindaria eta lapurrak



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Badakit *Bizi Baratzea* dela ARGIAren aurtengo produktu izarra, eta ez nator horretaz hitz egitera. Baina mesedez, utzidazu jolasa azaltzen eta ez laga alde batera testua. *Perretxiko zaindaria* ize-na du etxeko txikientzako prestatutako mahai-jolasak. ARGIAk berak TV3rekin elkarlanean katalanez egindako *Çaça-dors de bolets* jolasa euskaratu du aurt-en eta haxe da emaitza.

Udazkenarekin batera hasten dira goi-zeko ordu txikietan perretxikotara joan ohi direnen lehen mugimenduak, perretxikoak zaintzera, biltzera edo lapurtzera (herri batetik bestera desberdin definituko dira). Nola jakin, ordea, zein diren bildu beharrekoak, zein diren jangarriak eta zein pozoitsuak, eta nolako itxura duten? Euskal Herrian bildu daitezkeen 112 perretxiko-klase daude jolasean, beren irudi eta guzti, eta galderak ondo erantzutearen poderioz joango gara perretxikoak esku-ratu eta fitxak aurrera mugitzen.

Jolasteko hiru modu

Ez dago jolasteko formula bakarra. Hiru modu dauzkagu aukeran. *Boilurraren bila*; *Aniztasuna da gakoa* eta *Bete saskia*. Jolas-modu bakoitzak bere helburuak izango ditu, eta horren arabera antolatuko da estrategia eta ibilbidea; perretxiko bila joateko basoan lau bide izango baititugu aukeran.

Perretxiko biltzean arau batzuk ere badaude, eta mahai-jolasean ere errespetatu beharko dira arazorik izan nahi ez bada. Nork ez du ezagutzen gipuzkoarren eta nafarren arteko liskarra? Jolasean ibilbide bat aukeratu dugu, gure ibilbidea eta lurraldea izango dena, baina bide batetik besterako zubi batzuk ere badaude. Besteen lurretan sartzen bagara, ordea, perretxiko-biltzaile izatetik perretxiko-lapur izatera pasako gara, eta bertakoak han harrapatuz gero, zigorra jasoko dugu. ■



Salneurria: 27 € / Harpideentzat: 24 €

Eskuratzeko deitu ARGIAra (943371545) edo sartu Interneteko argia.eus/denda helbidean.

“ARGIA behar dugu, bazterreko ahotsak erdigunera ekartzen dituelako”

Kattalin Miner,
MEDEAK talde feministako kidea

#darpidegu-ren perlak



Bertsotan saiatu eta ez duzu poto besterik egiten? Harpidetu @argia-ra. @ielortza-ri balio izan dio #darpidegu-k @zerdionk



- Imanol, noa hua?!?
- Partidua konponduiat, oain @argia-ko harpidetza inbiteit. Banitxek hegan! @boligorria

Egin zuk ere #darpidegu umoretsua sare sozialetan:

- Hartu pertsona edo adierazi nahi duzun gaiaren bi argazki.
- Gehitu azalpen testua eta igo sarera #darpidegu hitza jarrita.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.